

## JUAN GARMENDIA KORTADI

(1898-1989)

Idazle eta Euskaltzaindiko urgazle hau, "Zeleta" izenordeaz ezagunagoa genuena, iragan uztailaren 6an hil zen Logroñon. Sortzez Gipuzkoako Lasartekoa eta urte askoan Plaentzia / Soraluze eta Donostian bizia.

Haren idazkietan, gerraurretik, Zeletaz gainera beste honako izenordeok ere erabili zituen, Jeltzale eta Berrikki.



Gerraondoan, Begoña izeneko liburudenda jarri zuen Donostian eta euskararekin kezkatuak zebiltzan gazte guti haiei, ni neu ere haien arteko nintzela, liburu zahar eta berri aurkitzen egin zuen ahalegin eta lana benetan pizgarria izan zen urte ilun haietan. Hizlari bezala ere maiz agertu zitzaizkion euskaltzaleen bileretan, baina bai hitzaldietan zein idazkietan bere burua aski gizaixo eran agertzen bazuen ere, uka ezinezkoa zaigu lan garrantzitsua bete zuela urte haietan, eta 1965ean urgazle izendatua izan.

Aditza dugunez, 1914. urtean hasi zen euskaraz idazten *Argia*, *Euzkadi*, *El Día* eta beste zenbait aldizkaritan. Gerraondoan, *Euzko-gogoa*, *Zeruko Argia*, *Egan*, *Karmel*, *Oleri*, *Aránzazu* eta abarretan jarraitu zuen.

Gainera, honako antzerkion egilea dugu: *Itxutasun madarikatua* (1921), *Joxanton'en eriotza* (1922) eta *Patxi Kirten* (1925); entretenigarri idatzi zituen lan ximpleak dira. Gerraondoan saiaera liburuxka bat idatzi zuen gaztetxoei gure literaturaren berri emateko asmoz, *Euskararen iraupena eta Euskal-literaturaren aurrerapena* zeritzona, Donostia, 1955, eta bere sorterriko monografia bat, historiarako baliagarria, *Lasarte-Aurtzaroko oroipenak*, 1958an. Semeari lagundu zion itsas-hiztegi gintzan.

Azken urteotan Logroñon bizi zen alabaren familiarekin, baina beti hemengo berriei begira. Goian bego euskaltzale zintzoa.

J.S.M.